# URAREN KOLOREAK

# LOS COLORES DEL AGUA

Blanca Basabe
Manuel Macías
Enrique Ochotorena
Vera Callejo

**Pinturan aurrez aurre jartzen naiz nire errealitateekin, unearen eta nire aldartearen arabera aldatzen diren errealitateeekin.**

**Formen atzean dagoenaren bila ibiltzen naiz, ahaleginak egiten ditut orbanetatik abiatu eta mamia, paisaien arima aurkitzeko. Nire helburua da egoera baten, inguru baten edo bizipen baten aurrean ditudan sentimenduak adieraztea, deskribapen gehiegirik gabe.**

**Beti saiatzen naiz elementuak osotasun batean “integratzen”, eta horrela sintesi handiagoa lortzen.**
**"GUTXIENA GEHIENA DA".**
**Erakusketa honetako ikusle bakar bati nik adierazi nahi izan dudanetik zerbait iritsiko balitzaio, pozik geldituko nintzateke.**

*En la pintura, me enfrento a mis propias realidades, cambiantes según el momento y mi estado de ánimo.*
*Busco mas allá de las formas tratando de encontrar el fondo, el alma de los paisajes, partiendo de manchas, que sin necesidad de demasiada descripción, lleguen a expresar mi sentimiento ante un entorno, una situación o una vivencia.*

*Siempre procuro "integrar" los elementos en un todo para lograr una mayor síntesis.*
*"LO MENOS ES MÁS".*

*Si a alguno de los asistentes a esta exposición le llegara algo de lo que he querido expresar, me daría por satisfecha.*

BLANCA BASABE

---

**Gure garaiko obra bat**

**Akuarelak pixkanaka-pixkanaka joera espresionista eta sintetizatzaile baterantz egin du, konposizio, forma eta koloretan. Orain gure garaiko obra bat da, sentimendu eta emozioen konplizea. Artistaren barne-bulkaden komunikabide bihurtu da. Denbora pasatu ahala, gero eta protagonismo gutxiago ematen zaio estetika hutsari, baina horrek ez du obraren barne-balioan ezer aldatzen. Teknika piktorikoaren eta balio espiritualen arteko sinbiosi bat azaleratu du, eta horrek ekarri du akuarela bere baitan baloratzea, hari buruzko definizioetan oinarritu gabe; askotan definizio horiek akuarela kaltetzen dutelako eta gutxietsi egiten dituztelako akuarelaren praktikak dituen zailtasunak.**

**Beraz, ur-margoen teknika honek azken urteotan izan duen bilakaerak abiapuntu jakin bat izan du, eta da artistak daukan kezka, interesa eta ezinegona, transmititu behar duen horretarako hizkuntza modura balioko dioten forma eta modu berriak deskubritzeko (testurak, materialak, prozesuak...). Une horretatik aurrera akuarelak elementu estetiko izateari utzi eta arte-lan egiten da.**

*Una obra de nuestro tiempo*

*La acuarela ha evolucionado paulatinamente hacia una tendencia expresionista y sintetizadora sobre la composición forma y color, llegando a ser una obra de nuestro tiempo, cómplice de sentimientos y emociones, transformándose en un medio comunicador de los impulsos interiores del artista. Conforme el tiempo pasa se le va dando menos protagonismo a lo meramente estético, sin que ello altere el valor interior de la obra, aflorando una simbiosis entre la técnica pictórica y los valores espirituales, esto hace que la acuarela se valore por si misma sin apoyarse en definiciones que no hacen más que dañarla y menospreciar las dificultades que conlleva practicarla.*

*En conclusión, la trayectoria evolutiva que esta técnica al agua ha experimentado en los últimos años, es consecuencia de la preocupación, el interés y la inquietud que el artista tiene por descubrir nuevas formas y maneras (texturas, materiales, procesos...) que le sirvan de lenguaje para expresar aquello que necesita transmitir. Desde ese momento la acuarela pasa de ser un elemento estético a una obra de arte.*

MANUEL MACÍAS

**Akuarela nire motorra da, nire ihesbidea, eta gu bion arteko harremanean berezkoa da etengabeko borroka: fronte ugari ditugu elkarren indarrak neurtzeko, paperak, gramajea, kolorea eta mundu honetan jaun eta jabe den ura aplikatzeko moduak... Eta, hala ere, nolako zoriona oparitzen digun.**

**Oraindik ere baditut Akuarela andrearekin konpontzeko kontutxo batzuk; oraindik esplikatu egin behar dizkit nik dagoeneko ontzat emandako lan batean bat-batean egiten dituen erantzun-aldaketa horiek. Hala eta guztiz ere, aitortu beharra daukat gozatu egiten dudala maitasun/gorroto harreman bitxi horrekin. Nahiz eta hamar lan bidean gelditu, bakar batek, ondo eta egoki egindako bakar batek konpentsatzen ditu, eta nola, aurreko nahigabeak.**

**Gainerakoan, marrazketa ere izugarri maite dut, eta lan batzuetan ederki igartzen da hori. Baina, hala ere, disfrutatu egiten dut, eta asko gainera, orban iradokitzaileekin, kromatismo harmonikoarekin... Zorionez, ikasten segitzen dut.**

*La Acuarela es mi motor, mi evasión, y pelearme de continuo con ella está implícito en nuestra relación: la gran variedad de frentes en los que nos medimos, papeles , gramajes, modos de aplicar el color y el agua, dueña y señora de este medio. . . .Aún así, cuánta felicidad nos regala.*

*Todavía tengo cosas por resolver con Doña Acuarela, aún me tiene que explicar esos cambios repentinos de respuesta cuando yo ya daba por hecho un buen resultado. Y a pesar de ello debo reconocer que disfruto con esa extraña relación amor/odio, en la que aunque diez obras se queden en el camino, una sola, de buena y digna factura, compensa con creces el sinsabor anterior.*

*Por lo demás, me apasiona el dibujo y se nota en algunas obras, y sin embargo, disfruto y mucho con la sugerencia de las manchas, el cromatismo armónico. . . sigo aprendiendo, afortunadamente.*

ENRIQUE OCHOTORENA

---

**Gazte-gazte nintzela, hamahiru urterekin hasi zen nire karrera piktorikoa... Eta harrezkero akuarela izan da nire mundua eta nire bizitza. Dena eman dit... Akuarelari esker ezagutu nuen nire maisua, denborarekin nire senar izango zena. Akuarelari esker ezagutu ditut Espainiako akuarelista onenak, denborarekin lagun handi egin ditudanak. Horiekin batera lortu dut akuarela eta bere teknika gehiago maitatzea.**

**Europako hiriburuetako erakusketa askotan parte hartu dut nire lanekin. Ohitura daukat akuarelaren baitan nazioan eta nazioartean antolatzen diren jaialdietara joateko. Une honetan lan bat edukiko dut biurteko iberoamerikarrean.**

**Eta horretan ari naiz buru-belarri eta helburu batekin: koadro bakoitzean jendeak senti dezala nik hura margotzean sentitu dudana. Espero dut nire erakusketa txiki hau gustatuko zaizuela.**

*Empecé mi carrera pictórica muy jovencita, con trece años... y desde entonces la acuarela ha sido mi mundo y mi vida. Me lo ha dado todo... Gracias a ella conocí a mi profesor, quien luego se convirtió en mi marido, conocí, convirtiéndose después en grandes amigos, a los mejores acuarelistas de toda España, y con ellos, amar más la acuarela y su técnica.*

*He participado con mi obra en diversas exposiciones por capitales de Europa. Y habitualmente asisto a los festivales nacionales e internacionales de la acuarela. En este momento voy a tener una obra en la bienal iberoamericana.*

*.... Y en eso sigo... dándolo todo y queriendo que en cada cuadro la gente sienta lo que siento yo al pintarlo. Espero que os guste mi pequeña muestra.*

VERA CALLEJO



**Blanca Basabe**
*Itsaslabarra / Acantilado* 100 x 70 cm.



**Blanca Basabe**
*Meategi sarbidea / Boca de mina* 100 x 70 cm.



**Manuel Macías**

*Basa de la Mora* 50 x 70 cm.



**Manuel Macías**
*Negua Ordesan / Invierno en Ordesa* 32 x 46 cm.




**Enrique Ochotorena**
*Oin-aulkia / El reposapiés* 16 x 50 cm.



**Enrique Ochotorena**
*Madriguera (Segovia)* 30 x 40 cm.



**Vera Callejo**

*Arrantza eguna/ Día de pesca* 35x 50 cm.




**Vera Callejo**

*Elurra herrixkan / Nieve en la aldea* 70 x 50 cm.



SANZ ENEA

*2015ko Otsailak 13 - Martxoak 22*

Ordutegia:

*Egunero 18:00 - 20:00*

ZARAUZKO UDALA

KULTURA SAILA